


EUSKAL HERRIAREN HISTORIAZ II Historiaurrea

J. ALTUNA, J.M. APELLANIZ, A. AZKARATE, I. BARANDIARAN, J.M. BARANDIARAN,
J.M. BASABE, A. LLANOS, X. LARRAÑAGA, J.A. MUJICA, C. DE LA RUA.



Servicio Editorial
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO



Argitarapen Zerbitzua
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

SARRERA

José Miguel BARANDIARAN

Gure lurralde honek —Euskal Herriak—, ikaslan batzuk dakarzkigu. Lehenik behintzat hauxe: zer giza-mota bizi zen hemen lehen alditan eta nolako bizikera zeraman.

Bigarren: non eta noiz agertu zen euskal gizakia edota non eta nola sortu ziren euskaldunak. Galdera honek euskalduna nolakoa den jakitea behar-tzen gaitu. Jakiunda horretara iristearren (batez ere gizasoinari buruz) egin zituzten beren antropologiazko ikerketak Collingnonek, Aranzadik, Jaureguiberrik, Marquer-ek eta, gure egunetan, Basabek. Giza-odolari buruz ari izan dira eta orain ere ari dira beste zenbait.

Hirugarren ikaslana, Euskal Herriko lehen gizakiaren hezikera eta bere gaiak nola izan diren eta mendez-mende nola ibili diren agertzea da.

Beraz Euskal Herriko gizakiak eta hezikerak ezagutzeko berauen lehen erroak ikastea da beharrezkoa. Gaurkoa bera ere lehengoetan oinarritua baitago eta hauen indarrez dugu gaurdaino iritsia.

Aspaldidanik esana dut eta orain berriro esanen dut hauxe: Tokien eta giroen ezaguerak lanbide horretan —gure lehen gizakien bizikera ikasten— zerbait laguntzen digute. Herria non bizi, hango ikusbiran eta lurretan giza-kiak bere jokabidea kutsatzen du eta moldatzen.

Pirineo mendiak duten apalune handian dago Euskal Herria. Ez toki laua, ez berdina, menditsua baizik; gizakientzat eta ihizientzat mendi saldo horrek duen irangurik zabalena ordea, eta lurralde batetik besterantz ir-teera aski irekiak dituena.

Oraingo gain eta orderak, sakan eta goiti-beheti asko gure lurralde ho-nek sortzez —urgaindu zenetik— hala ditu, nahiz eta gehienak geroztik ildo-katuak.

Lurralde asko hargorritzkoak: gehiago, ordea, harraukaharrizkoak, leize eta lurruspe ugarrekin: Arlas, Lexe, Ite, Aralar, Handia, Entzia, Toloño, Haizkorri, Ernio, Izarraitz, Anduz, Igozmendi, Anboto, Eskubara, Itxina, etab.

Iturriadar asko eta ibaiak sarri Pirineo gailurretik alde bietarantz: itsasaldeko sakanetara batzuk, hegoaldeko ibarretara handienak.

Itsasoa iparraldetik; 200 kilometroz luze den itsasbazterra, hondartza lauekin bere altzoetan eta hogeika kaia bere adarretan.

Giro biguina gaurko egunean. Itsas haizeak iparraldetik, lur barrukoak hegoaldetik: han hezeak, hemen idorrakoak; belar eta zuhaitzen hazkiro egokia, ordea, gehienetan.

Euskal Herria oso egokia agertzen zaigu belarjale diren ihizientzat, batez ere alde menditsuetan dituen larre eta aterpeei esker. Ihiziak, aldiz, itsasokoak nahiz lehorrekoak, gizakientzat on dira: azkurri eta laguntzaile. Baita basoak ere etxegai eta errekinetarako; lurra, berriz, haziak eta landareak bizi ahal eta hazteko; lurpea, hargogor eta meatzak gorde dituelako; gainvehera doan uraren indarra eskeintzen dutelako; itsasoa, arrainak dituelako, ibilbide zabal eta gutzira hedatua dugulako, etab.

Giroa, ordea, ez da beti berdina izan eta gizakiari ez dizkio lanbide berak eskeini. Lurraldeak berak aldaketa handiak ukan ditu. Gure lurbira honen azkenaldian edo laugarren Aro Nagusian, lau izozte haundi, beren zerrepeltarte luzeekin iraganak dira: *Guntz*, *Mindel*, *Riss* eta *Würm* direlakoak alegia (laurok Alpeetako uren izenekoak).

Giro aldaketan arauera ibili dira larrekienak, zuhaitzenak, ihizienak eta gizakienak ere. Garai horietan bilduak edo pilatuak dira gure mendien oinetan eta ibai hegaletan ageri diren harritsak eta hondartzak eta leizeetako betegarri gehienak: orduko euri-jaseen eta elur-urtzeen bidez sortu ziren ibaiek orraztutako lurren hondakinak, alegia. Eta horretan zakontzen bait zihoaizten, urak zekartzan harkaskar, hondar eta lurra gero eta beheragoko mailetan pilatu zituen. Horregatik, Laugarren Aro nagusiko hondartza eta harritzak, zenbat eta zaharrago, hainbat goragoko tokietan ageri. Denak, ordea, garai haietako ibaien ezagugarri eta lekuko dira. Hauek erraz ikusten ditugu Arga, Aragon, Ebro, Zadorra, Ibaizabal, Uhertzi, Aturri eta Errubi ibaien ezker-eskuin, mailaz-maila bilduak. Harpe eta leizeetan ere berdin; baina hauetako mailak, zenbat eta beheragokoan hainbat eta zaharragoak.

Hondakin horiekin batean lehen gizakien aztarnak agertu izan ditugu toki askotan, batez ere harpeetako betegarriei lotuak.

Halako lekuetan bizi bait ziren aldi haietako gizakiak, hango zoru-lurretan utzi zizkiguten beren kutsu eta aztarnak, bakoitza bere bere garaiko mailan. Hala ikusten ditugu Gatzarrian, Isturitzen, Olhan, Aizpitarten,

Ekainen, Urtiagan, Ermittian, Amaldan, Lezetxikin, Bolinkoban, Lumentxan, Abittagan, Santimamiñen, Axlorren, Arenazan, Txarratun, Abaunzan, etab.

Maila horiek, bakoitza bere garaiko delarik, liburu baten orri bezala dira; bakoitzak bere aldiko berri agertzen digula. Horien bidez ikas ditzakegu, beraz, mailako gaiak ez ezik, baita orduko giro, landare, ihizi, giza-azkazi, antzeak ertiak etab.

Aipa ditugun oroitzapenak eta giza-urratsak ez dira denak garai batekoak noski. Garai bakoitza, ordea, izen berezi baten bidez adierazi ohi dugu. Baina hori ikastaro honetan zeheki eta egoki ikusi eta ikasiko duzue.

Lurralde batean dago Euskal Herria eta bertan etxe eta herri batzuen tankeran ageri zaigu. Talde bat da eta talde horretan, dirudienez, gizaki berezi batzuk edo asko sortzen dira, aurpegiz, buruz eta odolez batez ere, nabari direnak. Talde hori, beraz, enda bat da.

Enda ez ezik, etnia ere bai. Ba ditu Euskal Herriak, olagintza, e. a., bere elkargoak —etxe, auzo, herri—, bere ohikunde eta legeak, bere kizkuntza eta esaundak, bere gizabidea edo bere hezikera darabilen eraen eta egitamu nagusia.

Hezikera honek, ordea, ba ditu bere aurrezteak, lehen aroetan —bakoitza bere mailan— sortuak. Hauen muinetan ikusten ditugu gaurkoaren erroak.

Ikas ditzagun, beraz, geure herriaren bizikerak eta ibilaldiak, lehen urratsei begira, nahiz eta mengel eta ilunabartuak izan ikusbira hori argitzen darabiltzagun zuziak.

Ikaslan haundia dugu hau. Hona hemen beronen oinarri eta iturburuak: Euskal Herriko lehen bizitzak, azterrendegiak eta etxegintzak, alegia.

Itsaldean nahiz lurbarruan, mendi eta ibarretan, ba ditugu nonnahi lehen gizakien bizileku, lehorpe eta hilarrien oroi eta ezaugarriak. Zuberoko Etxeberri eta Gatzarriatik hasita, Isturitzeko laminazilon, Aizpitarten, Aralarren, Urbasan, Txarratun, Anboron, Toloño, Santimaminen eta Karranzan zehar, ba dira hor lehenagoko sutondo, aterpe, elizaño ugari; baita trikuharriak ere eta harrespil edo mairubaratzak ehunka.

Toki horietan azterketak egiten ibiliak dira ikerlari batzuek, baita aztarna ugari aurkitu ere eta Euskal Herriko museoetan bildu. Isturitzekoak, ordea, urrunago dira: St. Germain-en-Lay izeneko herrian.

Aztarna horien berri liburu edo idazki askotan ikas genezake. Ez da aski, orde, horrelako iturrietan ura edatea eta lehen hezikeraren edo jakiundeen gaiak biltzea: giza-hezurak bildu eta elkarganatzea ez baita gizakia piztea.

Baina gure lehen gizonen aztarnak ba dituzte ikusgune garbiak ere. Aldi bakoitzeko berriak ikusbira batean ditugularik, elkar argitzen eta beren arteko hutsuneak maiz dizkigute osatzen.

Halaz ere, hain urrun dauzkagun lehen hezikerak ezin genitzake zeheki neurtu, ezta ere, gaurko gogaiera hitzen bidez, nolanaahi agertu. Ihardunaldi askoren beharra dugu lehen gizartean sartu eta murgil egiteko eta bizikera zaharren itxurak nabaritzeko.

Azterketak dakarzkiguten gaiak ez direla gauza osoki ezagunak ba dakigu. Berak, gurea ez den gogaera baterantz keinatzen gaituzten ohargarriak dira. Gainera, guk bizi ez ditugun ekintzak dira. Ez dugu ahantzi behar, ordea, gizakien egikerak ez ditugula egoki ezagutzen ahal, baldin geurok bizi ez ba ditugu. Horregatik lehen gizakiei buruz, gure azterketen bidez, bildu ditugun gaiak ezin ditzakegu erabili ixakaizaleak bere gaiak darabiltzan bezala. Gure gaiak jatorrizko beren gizainguru gabe heldu zaizkigu; beraz, hutsune haundiagaz.

Gai batzuek, ordea, beren jatorrizko egitekoa nahiko garbi adierazten digute. Ikuspegi hori garrantzitsua da, izaki horien ixipilu da eta bere garai-ko hezikera erakusten digu.

Orain hasten dugun irakasaldi honetan gauza hauek xeheki ikasten ahal ditugu. Amaitu dut.

J. M. BARANDIARAN